



## **Bizkaia, inbertsio arduratsuaren munduko hiriburua**

### **Biscay ESG Global Summitaren III. edizioan**

- **Trantsizio Ekologikorako jarduneko Ministro Teresa Riberak parte hartuko du ekainaren 19an Euskaldun Jauregian egingo den nazioarteko goi bileran**
- **Bizkaiko Foru Aldundiak, Deusto Business Schoolek eta Fineco-Kutxabank Banka Pribatuak antolatzen dute inbertsio arduratsuaren alorreko nazioarteko adituak bilduko dituen topaketa hau**
- **Azpimarratzekoa da honako hauen parte-hartzea: Oğuzhan Karakaş, Cambridgeko Unibertsitateko Judge Business Schooleko Finantza irakaslea; Séamus Finn apaiza, Enpresa-erantzukizunaren Zentro Ekumenikoaren presidentea; eta Pablo Bascones, PwCko Jasangarritasun, EGE eta Klima-aldaketa sailaren bazkide arduraduna; beste batzuen artean**

**Bilbo, 2019ko maiatzak 7.** Biscay ESG Global Summit nazioarteko goi bilerak sozialki arduratsua den inbertsioaren gakoak eta etorkizuna jorratuko ditu ekainaren 19an, Bilboko Euskalduna Jauregian. Bizkaiko Foru Aldundiak, Deusto Business Schoolek eta Fineco-Kutxabank Banka Pribatuak antolatzen dute topaketa, eta bertan Trantsizio Ekologikorako jarduneko Ministro Teresa Riberak parte hartuko du.

Inbertsio arduratsuaren alorreko nazioarteko adituak biltzen dituen batzar honen hirugarren edizio honetara askotariko eragileak bertaratuko dira, hala nola auditoreak, aholkulariak, enpresak, mundu akademikoa, eta abar. Era horretan, Biscay ESG Global Summit ezinbesteko zita moduan finkatzen da, eta Bizkaia



finantza jasagarrien nazioarteko erreferente bihurtzen du, lurraldeak finantza-plaza gisa betidanik izan duen protagonismoa berretsiz.

Azpimarratzekoa da Cambridgeko Unibertsitateko Judge Business Schooleko Finantza irakasle Oğuzhan Karakaşen parte-hartzea; izan ere, irakasle honek ikuspuntu akademikotik jorratuko ditu komunitate inbertitzailearen koordinazio-formak, enpresen ingurumen- eta gizarte-politikak aldatzea xedetzat hartuta; horrekin batera, aztertuko du zer eragin duen lankidetzak horrek akziodunentzako balioa sortzerakoan.

Séamus Finn apaizak, berriz, Enpresa-erantzukizunaren Zentro Ekumenikoaren (ICCR) presidentea den aldetik, kasu praktikoak aztertuko ditu bere esperientziatik, horren bidez erakusteko nola sortu den inpaktu positibo bat enpresetan eta gizartean, akziodunen indarrak batzearen ondorioz. Panel honetan eztabaidagai egongo dira, beste gai batzuen artean, euren izaeragatik gatazkatsuagoak diren sektoreek eskatzen duten arreta, enpresekin kolaboratzeko estrategia eraginkorrenak, edo erakunde erlijiosoen jardura inbertitzailea.

Halaber, edizio honetan protagonismo berezia izango du enpresak Informazio ez-finantzarioko Egoera-orri bat aurkeztera behartzen dituen Legeak. Pablo Basconesek, PwCko Jasagarritasun, EGE eta Klima-aldaketaren bazkide arduradunak, lege hori onartu izanaren inplikazioak aztertuko ditu, eta baita indarrean sartzearen osteko sei hilabeteetako balantzea eta garai horretan ikasitako lezioak ere.

Gaur egun, inbertsio errentagarriak ez ezik, inbertsioen komunitateak inbertsio arduratsua eskatzen jarraitzen du, gero eta neurri handiagoan, eta horrek eskatzen du irizpide jasagarriak txertatzea inbertitzeari buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan. Testuinguru horretan, Biscay ESG Global Summit topagune egokia izango da ESG (ingurumena, gizartea eta gobernantza, haren ingelesezko siglen arabera) irizpideez eztabaidatzeko, sozialki arduratsua den inbertsioaren alorrean.



Azpimarratzekoa da Europa dela inbertsio jasagarrien munduaren liderra, konputu globalaren ia erdiarekin –konputu global hori ia 30 bilioi dolar dira-. Kontinente zaharrak osoko inbertsioaren % 46 du, eta hazten jarraitzea espero du. Beste alde batetik, Estatuari dagokionez, ingurumena, arlo soziala eta gobernu ona kontuan hartzen dituzten irizpideez kudeatutako funtsen ondarea 185.000 euro izan ziren 2017an, hau da, bi urte lehenago baino % 10 gehiago, Spainsifen zifren arabera.

Jokaleku horretan, Nazio Batuen Erakundeak bultzatutako inbertsio arduratsuaren printzipioak –PRI deritzanak- izan dira munduko katalizatzaile nagusia, sozialki arduratsua den inbertsioaren irizpideak hartzeari dagokionez. Sortu zirenez geroztik, PRIek 2.000 sinatzaile baino gehiago bildu dituzte, eta 80 bilioi dolarretik gorako aktibo-bolumena dute; gainera, bolumen hori etengabe hazten ari da.

Izena ematea

**VK** Comunicación

**Informazio gehiagorako:**

**Patricia Loredo Sierra**

**944 01 53 06 / 629 74 90 47**

**[patricia@vkcomunicacion.com](mailto:patricia@vkcomunicacion.com)**